



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko URTARRILAREN 31an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2012ko urtarrilaren 31an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Ainara Sarasola Arsuaga
Ainara Zurutuza Ilundain

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
2011ko azaroaren 22an egindako ohiko bilkuraren akta.
2011ko abenduaren 20ean egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Beste batzuk.**
- 5. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA
AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2011ko azaroaren 22ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

bertaratuek aho batez onestu dute.

- 2011ko abenduaren 20ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

34/2011 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 21ekoa, Faktura txikien zerrenda onestea, ebazten duena.

35/2011 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 20koa, 1-2011Kreditu Aldaketarako espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

01/2012 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 2koa, J.M.U. jaunari SS5827AH ibilgailuari dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera onestea, ebazten duena.

02/2012 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 17koa, J.M.A. jaunari 2012urtetik aurrera Elizegi etxe guztiari ura eta zaborra tarifak etxebizitza bezala aplikatzea onestea, ebazten duena.

03/2012 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 31koa, Hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

| | |
|-------------------------------|------------|
| - BDATEK INGENIERIA AMBIENTAL | 238,36€ |
| - BDATEK INGENIERIA AMBIENTAL | 576,01€ |
| - BALGORZA S.L. | 18.151,00€ |
| - ARGIA | 138,00€ |
| - VODAFONE | 273,67€ |



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

| | |
|---------------------------|-----------|
| - ALUMINIOS ARFEL, S.L. | 153,40€ |
| -TOLOSALDEA GARATZEN | 472,00€ |
| -ENEKO ITURBE | 3.048,80€ |
| - REPSOL | 940,55€ |
| -REPSOL | 311,76€ |
| -FONTANERIA ANTZIETA,S.L. | 226,74€ |
| -EBA ERKIZIA | 290,20€ |
| -IBERDROLA | 287,41€ |
| -IBERDROLA | 201,72€ |
| -IBERDROLA | 130,11€ |
| - IBERDROLA | 675,18€ |
| -OSTATU JATETXEA | 180,00€ |
| -IZADI LABORATEGIA | 141,60€ |
| -ARGITU ASESORES | 133,52€ |
| -VASCONGADA DE ALCOHOLES | 222,85€ |
| -CASER | 398,75€ |
| -SASURLA | 237,09€ |
| -IZFE | 528,64€ |
| -TINDU MARGOAK | 743,87€ |

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **28.701,23** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARRENGO PUNTUA **BESTE BATZUK**

4.1. AGIÑA BASERRIAREN ONDOAN DAGOEN TXABOLAREN KONPONKETARAKO OBRA BAIMENA.A.S.

Ikusirik A.S. andreak eginiko eskaera, non Agiña baserriaren ondoan dagoen txabola konpontzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Ainara Sarasola zinegotziaren abstentzioarekin 30/1992 Legeak 28. artikulua xedatutako kasu batean aurkitzen delako, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.S. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Agiña



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

baserriaren ondoan dagoen txabola konpontzeko obra baimena eskaera onestea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

4.2. S.O.S. BEBES ROBADOSEK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA

Ikusirik S.O.S. Bebes Robados Euskadik eginiko eskaera non ondorengoa dioen:

“SOS Bebes robados Euskadi irabazi asmorik ez duen Euskal Elkarte gisa aitortua dago, eta 2011/ekainaren 9ko egunean 500451/2011 zenbakiaz erregistratua. Bere Zerga-Identifikazioaren zenbakia G75048728 da.

Zoritxarrez, kaltetutako familia asko dira Gipuzkoan, eta hauek guregana jotzen dute laguntza eta orientabide bila.

Une honetan gure lehentasuna beren beharrei behar den bezala erantzutea da eta ahalegin ekonomiko eta dedikazio handia eskatzen dute.

Kaltetutako famili guzi hauen beharrei behar bezala erantzutearren ezinbestekoa izan da funts-solidario bat sortzea, aholkularitza lanetan eta eskaintzen dugun laguntzetan Elkartearen izaten ari diren gastuak estaltzen joateko.

Ondorioz, zuen Udalari 300€ eurotako laguntza sinbolikoa eskatzen diogu.

Aldez aurretik, mila esker.”

Gaia aztertu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: SOS BEBES ROBADOS EUSKADI-K eginiko diru-laguntza eskaera ukatzea, krisi ekonomikoa dela eta, 2012 urtean diru-laguntzetako partidari ez dugulako aurrekontuetan..

BIGARRENA: Erabaki honen berri SOS BEBES ROBADOS EUSKADI-ri ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

4.3. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2011ko 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkeztutako idatzia, non Alkizako Udalak 2011 ekitaldirako 3. eta 4. hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutu dezan eskaera egiten duen, sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 15.000 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2011 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

HIRUGARRENA.- 15.000,00 eurotako gastua onestea.

BOSTGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.